



DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritza

Kodigoa 1.01

Genero Egokitasuna Baxua

Aurrekontua 1.084.339 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	362,28	131,17	208,50	213,76	1.084,34	-63,79%	58,95%	2,52%	407,27%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	2,19%	0,58%	0,88%	1,41%	6,32%	-73,52%	51,72%	60,10%	348,62%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programari, besteak beste, jarduera hauek dagozkio:

- Diputatu Nagusiaren Alorraren sistema informatikoa zerbitzuekin eta unitateekin koordinatzea eta, halaber, Departamentu osoarentzat interesa duten programa berriak jartzea eta garatzea.
- Erabakiak hartu behar dituzten organoetara izapidetzen diren egintza eta ebazpen guztien legezotasuna kontrolatzea eta, baita, Herri Administrazioen Kontratuen Legea bete behar duten espedienteena ere.
- Diputatu Nagusiaren Alorraren eskumeneko xedapen arauemaileen azterketa, prestaketa eta jarraipena gidatu, bultzatu eta gainbegiratzea.
- Diputatu Nagusiaren Alorraren eskumeneko gaietan, diputatu nagusiaren, Kabineteko Buruaren edo zuzendari nagusien zuzendaritzapean, xedapen orokorreko proiektuak eta beste administrazio publiko batzuekin nahiz erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzaz hitzarmenak edo/eta protokoloa
- Diputatu nagusiari eta Diputatu Nagusiaren Alorraren gainerako organoei lege aholkularitza eskaintzea, eta eskatzen dizkieten irizpenak ematea eta kontsultei erantzutea.
- Diputatu Nagusiaren Alorraren Erregistro Orokorra, Artxiboa eta Fede Publikoa.



2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak
Berdintasuneko Foru Plana Departamentuan ezartzea.	Genero ikuspegiaren integrazioa garatzea kontratazio eta diru laguntzen prozeduretan.
	Genero eragineko txostenak egitea izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduretan.

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Programa honek ez du eragin zuzenik herritarrengan, baina bai Departamentuko funtzionarioengan

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Programa honetan burutzen diren ekintzak Berdintasun Planaren beste ekintzen osagarriak dira, zeinetan azterketa edo gogoeta kualitatiboa egin behar den.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Diputatu Nagusiaren kabinetea

Kodigoa 1.10

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 1.429.013 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	4.496,12	11.233,71	5.455,99	4.221,75	1.429,01	149,85%	-51,43%	-22,62%	-66,15%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	21,17%	49,48%	22,17%	26,78%	8,33%	133,73%	-55,19%	20,79%	-68,89%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Diputatu Nagusiaren Kabineteko aurrekontuan gobernuaren jardueraren koordinazio eta jarraipen lanentzako aurrekontu zuzkidura jasotzen da, eta Lurraldeak dauzkan arazo nagusiei irtenbidea emateko helburu orokorretik abiatuta, lurraldearen eraldaketa ekonomiko eta soziala lortu nahi dira.

Ildo horretatik, planteatzen da ekonomia suspertzea bultzatzea eta, baita ere, Gipuzkoako gizartearekin harreman eta parte-hartze estilo berriak etengabe bilatzea, horretarako truke eta kontraste sareak sustatuz. Bestalde, Diputatu Nagusiaren lidergoa bideratzen da bakea behin betiko eta modu atzeraezinean finkatzen laguntzera eta Gipuzkoako kultura demokratikoa sakontzera. Lehentasuna izango du, era berean, epe ertain eta luzerako hausnarketa sustatzeak, politika publikoa birbideratzen laguntzeko.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Diru laguntzetan eta kontratazioan genero berdintasunaren ikuspegia sartzea.	Diputatu nagusiak sinatuko dituen hitzarmenetan berdintasuneko klausulak sartzea.	Hitzarmen kop.	15
	Diputatu Nagusiaren Kabineteko kontratuetan berdintasuneko klausulak sartzea.	Kontrato kop.	20



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak
2015-2019 legealdirako foru gobernuaren programari dagokion jardueren, berdintasun politikak abiaraztea sartzeko dena, oinarritzko strategiaren ezarriera lidertzea.	Berdintasunari buruzko araudia eta Diputatuen Kontseiluak onartutako erabakiak gauzatzea eta betearaztea.

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Bai egiturak osatzerakoan, bai komunikabideen aurrean edota herritarren aurrean aurkeztu behar garenean gizon emakumeen oreka bereziki lantzen dugu.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

Ez

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Aldundiaren Kudeaketa Estrategia

Kodigoa 1.20

Genero Egokitasuna Altua

Aurrekontua 2.607.334 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)					2.607,33				
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %					15,20%				

Sortu berria den programa bat denez gero ez daukagu informazio hori.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programaren **helburu nagusiak** honako hauek dira:

2015-2019 bitarteko Kudeaketa Plan Estrategikoa modu eraginkorrean gauzatzea, gobernantza eredu ireki eta lankidetzazko baten bidez.

1. Hausnarketa sustatzea epea ertain eta luzera, politika publikoak berbideratzen laguntzeko.
2. Zentzu horretan, Kudeaketa Plan Estrategikoa potentzial handia du genero desberdintasunak zuzentzeko.

Hartzaileak

Programa herritar guztiei zuzentzen zaie, azken xedea diputatu nagusiari laguntzea delako bere gobernu jardueran, eta hor barruan sartzen dira GFAREN politika publiko guztiak.

Jarduerak

- Kudeaketa Plan Estrategikoaren jarraipena, ebaluazioa eta komunikazioa.
- Emaitzetara bideratutako aurrekontua, eta koherentzia eta lotura lortzea plangintza tresnen artean.
- Etorkizuna Eraikiz programa abian jartzen eta gauzatzen laguntzea: sistema bat garatzea joeren azterketa eta zaintza estrategikoa egiteko GFAREN intereseko alor nagusietan.



2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako elburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Kudeaketa Plan Estrategikoaren ildo nagusiek (printzipioak eta helburu nagusiak) adierazten dute Planaren xedeetako bat ekonomia eta gizarte mailako kohesioa dela, eta hor barruan sartzen da genero desberdintasunak murriztea. Beste alde batetik, departamentuek genero arrailak ezabatzeko lagungarri izan daitezkeen helburuak eta jarduera ildoak ezarri dituzte, eta Planaren gobernantza ereduak jarraipena egiteko mekanismoak ezarri ditu, planak generoaren ikuspegitik duen eragina ebaluatzeko.

Horrela, Kudeaketa Planaren 3.2 puntuan, 11. orrialdean, erronken artean sartu da "Hizkuntz eta genero berdintasuna bultzatzea... Genero berdintasunaren arloan, gaur egun gure udalerrietatik % 25ek (biztanleriaren % 65 dira) berdintasuneko politikak garatzeko esparru egonkorra daukate. Alabaina, gure erronka da Gipuzkoa erreferentzia bihurtzea berdintasun politikan, foru arauaren garapen progresiboaren bidez batetik eta gizartearekiko solaskidetza etengabe oinarritutako lan eredu bat sortuz bestetik, udalekin eta arlo honetako sustatzaile diren beste instituzio eta erakunde batzuekin batera."

4.2 puntuan Planaren helburu eta konpromiso nagusiak ezartzen dira, eta honako hau dio lehen helburuari dagokionez:

- **Gure gizarte ongizate eta kohesio ereduaren sendotzea. ...Era berean, gure erronkak berdintasun politiken arloko erreferentzia bihurtu nahi du Gipuzkoa.**

Helburu guztiak banan-banan aipatu ordez, genero desberdintasunean eragin handiena izan dezaketen helburu eta jarduera ildoak aipatuko ditugu:



Diputatu Nagusiaren Kabinetea

4. HELBURUA. Genero ikuspegia eranstea foru politika publikoak zehaztean, definitzean, gauzatzean eta ebaluatzean.

Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa

14. HELBURUA. GFA **zerbitzari publikoa ahalduntzea**, organizazioa eta dituen gaitasun eta ahalmenak pixkanaka eraldatuz joateko esparrua bultzatuz, aldaketaren protagonistak pertsonak direla kontuan hartuta.

29. HELBURUA. Baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatzea (jarduera ildo horretan sartzen da aurrekontua generoaren ikuspegitik kudeatzea).

31.HELBURUA. Zerga-sistema desberdintasun ekonomikoa murrizteko benetako tresna bihurtzea.

Gizarte Politika

39. HELBURUA. Gipuzkoaren gizarte baliabideen sare publikoaren eskaintza egokitzea gizarte beharren bilakaera kontuan hartuz eta horrek lurraldean oreka izatea lortzea.

40. HELBURUA. **Zerbitzu eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea**, pertsonen beharretara egokitzen den eta bere inguruetik ahalik eta gertuen dagoen arreta bermatzeko.

Planaren inpaktua generoaren ikuspegitik ebaluatzeko tresna eta mekanismo nagusiak.

Planak 7. puntuan planaren gobernantza azaltzen du eta ezartzen ditu hainbat mekanismo planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko datozen lau urteetan: besteak beste, Batzar Nagusiei hiru hilean behin planaren betetze mailari buruzko argibideak emango zaizkie.

Horrela, kudeaketa eredia edo planaren gobernantza osatzen duten elementuen artean honako hau sartu da: Aginte koadroa, adierazle gakoekin eta 2018rako ezarritako xedeekin, sexuaren arabera bereizita.

Izan ere, Planarekin lortu nahi diren helburuak sexuaren arabera bereizi dira, adierazlea pertsonen buruzkoa denean.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

Programa honek ez du lotura zuzenik gaitasunekin, bere helburua Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019 eraginkortasunez kudeatzea baita. Nolanahi ere, helburuaren arabera, 10. gaitasunarekin -Komunitatean partaidetza soziala eta politikoa- lotu daiteke.

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Komunikazioa

Kodigoa 1.30

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 2.439.177 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	1.526,78	2.208,17	1.596,74	1.753,40	2.439,18	44,63%	-27,69%	9,81%	39,11%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	9,22%	9,73%	6,49%	11,12%	14,22%	5,53%	-33,30%	71,38%	27,84%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Programa honek kredituen zuzkidurak jasotzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren lana ohiko komunikabideak hala nola komunikatzeko tresna eta sistema berriak erabiliz herritarrei gerturatzeko, eta departamentu ezberdinak komunikazio ekintzak bideratuz eta lurraldeko atari instituzionala den gipuzkoa.eus-eko edukiak eta departamentuetako web guneak koordinatzeko.

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Gipuzkoako Foru Aldundiak hedabideekin dituen harremanak koordinatzea generoaren ikuspegia sartuz	Erne ibili behar da igorritako mezu desberdinetako emakumearen eta gizonaren presentzia egokia izan dadila, genero zuzentasunaren arabera	Komunikazio kanpaina kopurua	24

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak
Komunikazio politika Gipuzkoako Foru Aldundiaren hurbiltasun lurraldeko gizon eta emakumeekiko helburuaren zerbitzura egon behar da	Informazio eskubidea bermatzea, hedapen sistemak bultzatuz, informazioa emakumeei eta gizonei modu berean helarazteko



3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Inongo analisi kuantitatiborik ez da egin.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 26. artikuluan xedatutako obligazioak betetzea eragotzi gabe, bere jardunean Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu hauek lortzeko ahalegina egiten du:

- a) Emakumeen presentzia islatzea bizitza sozialeko, politikoko, ekonomikoko edo bestelako esparruetan, eta gizonak zein emakumeak paper eta egoera sozial guztietan kokatzea.
- b) Hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; era berean, Gipuzkoako Foru Aldunditik edo hirugarren pertsona fisiko eta juridikoetatik datorren informazio idatziko eta ikonografikoko irudiak ere modu ez-sexistan erabiliko dira.
- c) Emakumeen eta gizonen trataera, protagonismoa eta balorazioa baliokide direla bermatzea, bai informazio idatzian, bai ahozko informazioan, bai informazio ikonografikoan, baita publizitate ekintzetan eta barne zein kanpo komunikazioan ere.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, erakunde komunikazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatu eta baliokidea sustatzea.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

Ez

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

Kodigoa 1.40

Genero Egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 1.590.899 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	2.023,00	1.582,00	1.700,00	1.529,36	1.590,90	-21,80%	7,46%	-10,04%	4,02%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	6,11%	3,48%	3,60%	7,91%	7,86%	-43,04%	3,45%	119,76%	-68,00%

OHARRA: Aurreko urteetako aurrekontuak ematerakoan, batu egin ditugu lehen Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritzaren aurrekontua eta Giza Eskubideak eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzarena.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

zk.	Gaia	zenbatekoa €	%	eskatzaileak
1	Liburuak eta bestelako argitalpenak	3.000,00	0,22 %	
2	Aniztasuna eta elkarbizitza sentsibilizazioa	180.000,00	13,00 %	20
3	Kultura politikoa eta sakontze demokratikoa	225.000,00	16,25 %	20
4	Bizikidetzaren eta giza eskubideen plana	300.000,00	21,66 %	16
5	Oroimen historikoaren azterketa/plana	6.000,00	0,43 %	1
6	L-Bizikidetzaren aldeko programak - Udalak	210.000,00	15,16%	14
7	L-Oroimen historikoa berreskuratzeko programak - Udalak	50.000,00	3,61%	14
8	L-Herrietan migrazioaren inguruan diagnostia eta harrera planak	120.000,00	8,66%	37
9	L-Bizikidetzaren aldeko programak. Elkarateak	90.000,00	6,50%	17
10	L-Oroimen historikoa berreskuratzeko programak - Elkarateak	90.000,00	6,50%	19
11	Hainbat diru laguntza izendun	111.000,00	8,01%	6
	Guztira	1.385.000,00	100	164

- Zuzendaritzaren helburu nagusia bakea behin betiko eta modu atzeraezinean finkatzea laguntzea eta Gipuzkoako kultura demokratikoa sakontzea da
- Jasotzaileak dira: udalak, enpresak, eta elkarateak. Halaber, pertsonak kontratatu nahi da, aholkularitza zehatzak emateko.



2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.			

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak
Giza Eskubideen eta kultura demokratikoaren ezagutza persona guztiei (sexuen arteko bereizketarik gabe) hedatzea	Diru laguntzen dekretuetan generoarekiko aukera berdintasuna ezarten da
Oroimen Historikoaren berreskurapenean emakumezkoen inplikazio handiagoa lortzea.	Diru laguntzen dekretuetan generoarekiko aukera berdintasuna ezarten da

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Aurten begirada berezia emango diegu gure diru laguntzen dekretuei, genero joera kaltegarriak ekiditeko. Momentu honetan datu nahikorik ez daudelakoan gaude; hori dela eta, prozesua luzatuko dela uste dugu.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:

Azaldu:

Ez:



DIPUTATU NAGUSIAREN DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Euskararen Normalkuntza

Kodigoa 1.50

Genero Egokitasuna Erdia

Aurrekontua 6.108.708 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	5.428,00	5.474,00	5.422,00	5.439,04	6.108,71	0,85%	-0,95%	0,31%	12,31%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	32,81%	24,14%	22,04%	34,50%	35,61%	-26,42%	-8,70%	56,54%	3,21%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

zk.	Gaia	zenbatekoa €	%	eskatzaileak
1	Euskarazko aldizkako argitalpenak	659.236	16,36	65
2	Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak	381.084	9,46	70
3	Lantokietan prestakuntza aldiak euskaraz	112.000	2,78	120
4	Euskararen erabilera soziala normalizatzeko udal planak	533.166	13,23	60
5	Eskualdeko hedabideen sustapena	100.000	2,48	5
6	Itzulpen praktikak egiteko bekak	5.500	0,14	4
7	Gipuzkoan euskaraz emititzen duten toki telebistak	356.068	8,84	5
8	Informazio eta komunikazio teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak	458.600	11,38	150
9	Irrati lokalen euskarazko jarduna	36.220	0,90	5
10	Diru laguntza izendunak	1.387.007	34,43	22
	Guztira	4.028.881	100	506

- Euskararen erabilera soziala sustatu eta hedatzeko zereginetan ari diren elkarte, enpresa eta udalei bitartekoak ematea da programaren helburu orokorra.
- Jasotzaileak dira: enpresak % 30; elkarteak % 51,7; udalak % 18; pertsonak % 0,3.
- Diputatuen Kontseiluak onartzeko, aldez aurreko txosten bat egingo dugu, 2012az geroztik egin izan dugun moduan, genero trataeraren ikuspegiaz. Araubide orokorrean, 4/2005 Legeak ezartzen dituen debekuak eta irizpideak jarraituko ditugu; berriazko araubidean, genero berdintasunaren ikuspegia ongi landua izatea balioetsiko dugu, diru laguntza mota guztietan. Horrez gain, diru laguntzaren gaiak hala eskatzen duen guztietan, eskaerak baztertzeko arrazioen artean ipiniko dugu ikuspegi sexista bat agertzen duten proiektuak diru laguntzetatik kanpo uzteko.



2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua
Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.			

Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak
2013ko azken asteetan, galdeketa bat egin genuen, diru laguntzen jasotzaileen artean eta deialdia egin aurretik, balioespen irizpideen gainean. Oro har, diruz lagundutako jardueretan genero berdintasuna bermatzeko irizpideari balio handiago emateko eskatu ziguten.	2013an egindako galdeketa emaitzak aplikatu genituen 2014ko eta 2015eko deialdietan; 2016koan ere aplikatuko ditugu.

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

- Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko aurrekontu proiektua (1. kapitulua alde batera utzita) 6.007.477 euro dela kontuan izanda, diru laguntzen programak aurrekontu osoaren % 67,06 egiten du.
- Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.

4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

- Berdintasun teknikaria duten udaletan, euskara teknikariak eta berdintasunekoak harremanetan jarri nahi ditugu, udalei ematen diegun diru laguntzen genero adierazleak definitzen hasteko.
- Aurreko bi urteetan egin ezinik gelditu zitzaigun proiektu bat berreskuratu nahi dugu: galdeketa bat luzatuko diegu gure diru laguntzak jasotzen dituzten elkarteei, partaidetza eta zuzendaritzaren esparruan gizon-emakumeen arteko banaketaz, generoaren aldetik dauzkaten planteamenduez, eta abarrez.
- Ohi bezala, itzulpengintzaren alorrean, gaztelaniazko testuen gainean generoaren trataeran berdintasun irizpideak hobeki aplikatzeko lanean jarraituko dugu, departamentuei proposamen zehatzak eginez.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA



6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU

7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai: Laugarren puntuak azaldutakoak.

Azaldu:

Ez:



DEPARTAMENTUA – DIPUTATU NAGUSIA

DEPARTAMENTUA	Diputatu Nagusia	2015	15.764.767 euro
		2016	17.155.288 euro

1. PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Berdintasuna

Kodigoa 1.60

Genero Egokitasuna Altua

Aurrekontua 1.895.818 euro

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia.

	2012	2013	2014	2015	2016	13/12	14/13	15/14	16/15
GASTUA (mila eurokoak)	1.679,70	1.307,34	1.273,71	1.426,01	1.895,82	-22,17%	-2,57%	11,96%	32,95%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %/	10,15%	5,76%	5,18%	9,05%	11,05%	-43,25%	-10,07%	74,62%	22,17%

2. PROGRAMAREN HELBURUAK, HARTZAILEAK ETA JARDUERAK

2.1. Deskribapen orokorra:

Berdintasun Zuzendaritzaren jarduketa ildoak biltzen ditu aurrekontu programa honek. Berdintasun Zuzendaritzaren ardura da berdintasunerako foru politikak bultzatzea, koordinatzea eta segimendua egitea, eta politika horiek lehentasun politikoa dute legealdi honetan foru gobernuan.

Hauek dira programaren **helburu** nagusiak:

- Berdintasunerako foru politikak bultzatzea, koordinatzea eta segimendua egitea
- Udal mailan berdintasunerako politikak sustatzea
- Gipuzkoako mugimendu feminista eta emakumeen elkarte mugimendua indartzen laguntzea
- Emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru politika berdintasunerako politikarekin lotzea
- Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei buruz eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde

Kolektibo hartzaileak

Funtsezko lau eremutako hartzaileei dago zuzenduta programa hau:

- Foru Aldundiko politikari eta teknikariei
- Gipuzkoako talde feministei eta emakume taldeei
- Gipuzkoako udalei, berdintasunerako ardura duten kargu politikoen bitartez, nahiz berdintasunerako udal teknikarien bitartez
- Gipuzkoako herritarrei oro har



Programako jarduerak

Programa honek 2015eko jarduera hauen finantzaketa biltzen du:

- A) Berdintasunerako II. Foru Plana sustatzea, koordinatzea eta segimendua egitea:
- Aldundiko egitura guztiakin barneko lana egitea, politikariekin nahiz teknikariekin, II. Planaren sustapena, koordinazioa eta segimendua aurrera eramateko (aholkularitza, prestakuntza-ekintza programa, lan esparru kolektiboak, prozedura komunetarako irizpideak landu eta abar).
- B) Berdintasunerako udal politikak sustatzea:
- C)
- Udal mailako proiektu estrategikoak diruz laguntzeko deialdia egitea
 - Udaletako berdintasunerako teknikarien arteko lan sareak sustatzea
 - “Berdinbidean” aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua, udalerrri txikiagoentzat
 - Udaletan berdintasunerako teknikariak kontratatzeko laguntza ematea
 - Berdintasuna sustatzeko esperientzia pilotuak garatzen laguntzea, Gipuzkoako beste udalerrri batzuentzat erreferentzia izan daitezen
- D) Gipuzkoako talde feministek eta emakume taldeek egiten dituzten jarduera eta ekimenei laguntza ematea, eta GFAREN eta talde horien arteko topaketa eta elkarrizketarako esparruak sortzea:
- Proiektu estrategikoak diruz laguntzeko deialdiak egitea
 - Donostialdeko eta Bidasoaldeko Emakumeen Etxeei laguntza ematea, eta Gipuzkoako emakumeen ahalduntze prozesuak sustatzeko dauden esparruen artean lan sareak sortzea
 - Euskal Herriko mugimendu feministaren artxibo historikoa sortzeko laguntza ematea
 - GUNEA Berdintasuneko Foru Kontseilua sortzea eta martxan jartzea
- E) Halaber, programaren baitan sartuko dira emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru politikak berdintasunerako politikekin lotzeko jarduketak:
- Indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloko aldundi mailako plangintza politiko eta estrategikoa, emakumeak ahalduntzera bideratua
 - Alarde mistoei babesa ematea, eta gatazka konpondu ahal izateko lan prozesuak garatzea
- E) Azkenik, programaren barruan egongo dira Gipuzkoako herritarrak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruz eta berdintasunaren alde sentsibilizatze jarduerak

Programaren esparruan egiten diren ekintza guztiak, programaren definizioagatik beragatik, Gipuzkoako emakume eta gizon guztien berdintasuna sustatzea dute helburu, era horretan, Berdintasunerako II. Foru Planak bizitza zaintzeari lehentasuna ematen dion antolaketa eredu ekonomiko eta soziala eraikitzen laguntzeko bidean aurrera egiteko

2.2. Genero helburuak: ekintzak eta adierazleak.

Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua



Adierazlerik gabe planteatutako helburuak	Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak

3. AZTERKETA KUANTITATIBOA GENEROAREN ARABERA

2. taula

Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta bakoitzaren aurrekontu gastua

	2012	2013	2014	2015	13/12	14/13	15/14
Berdintasunerako II. Foru Plana sustatzea, koordinatzea eta segimendua egitea	150.000	135.000	100.000	115.000	%90,00	%74	%115
Berdintasunerako udal politikak sustatzea	395.000	318.000	350.000	330.000	%80,50	%110	%94
Sare eta praktika feministak finkatzen laguntzea	403.000	348.210	320.000	442.00	%86,40	%92	%138
Indarkeria matxistaren aurkako programa	135.000	130.000	130.000	245.000	%96,29	%100	%188
Sentsibilizazio programa	135.000	70.000	100.000	94.000	%51,85	%143	%94

3. taula

Foru Aldundiarekin lan egiten duten kanpo eragileak

TALDE FEMINISTAK ETA EMAKUME TALDEAK

Talde feministak eta emakume taldeak	Guztiak	Gurekin lan egiten duten taldeak
	81	50

UDALAK

	Guztiak	Gurekin lan egiten dutenak
Berdintasunerako udal teknikariak	16 udalerrri + 1 mankomunitate	16 udalerrri + 1 mankomunitate
Berdintasun plana duten udalerrriak	23 Hau da, Gipuzkoako udalen %26 eta Gipuzkoako biztanleen %74,53	20
Berdinsarean dauden udalerrriak (1)	16	13
Berdinbidean zerbitzuan dauden udalerrriak (2)	68	38 udalerrri

- (1) Berdintasunerako eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea da Berdinsarea, 54 udalerrri daude sarean, eta EAEko biztanleriaren %80 baino gehiago dago ordezkaturata bertan.
- (2) Gipuzkoan 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzeko aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua da Berdinbidean.



4. AZTERKETA EDO HAUSNARKETA KUALITATIBOA

Berdintasunerako II. Foru Plana sustatzea, koordinatzea eta segimendua egitea

Berdintasun Zuzendaritzan, **berdintasunerako foru politikak bultzatzeko, koordinatzeko eta segimendua egiteko** 2015ean zehar abian jarritako jarduketan artean, hauek dira aipagarrienak:

Aldundiko berdintasunerako egiturekin barne laneko plan bat martxan jartzea, Berdintasunerako II. Foru Planaren segimendua egiteko	- Politikariekin egindako bilerak: 4 - Teknikariekin egindako bilerak: 4 - Politikari eta teknikariekin egindako bilerak: 1 Zerbitzu teknikoak: 20.000€
Barneko lana garatzeko, segimendua egiteko eta sistematizatzeko tresnak sortzea	- 2014ko segimenduaren eta GFAko 2015erako programazio globalaren txostena egitea - Informazioa biltzeko fitxak - Aholkularitza, kontrastea eta trukitzea ahalbidetzeko online plataforma - Urteko segimendu txostenaren eredia diseinatzea - Berdintasunerako II. Foru Planaren tarteko kanpo ebaluazioa 43.000€
Berdintasunerako foru politikak indartu eta iraunaraztea	- 2/2015 Foru Araua, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, landu eta onartzea - 2/2015 FA eta debate feministako hiru koaderno maketatu eta argitaratzea 10.000€
“Genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa”ri buruzko prestakuntza ikastaroa berdintasunerako foru egitura teknikoentzat (idazkaritza teknikoak eta zerbitzuburuak)	Partaide kopurua: 47 - Emakumeak: 32 - Gizonak: 15
Idazkari teknikoekin prestakuntza eta ekintza plan bat abian jartzea, kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak sartzeko	- Lan saioen kopurua: 4 - Partaide kopurua: 11 - Emakumeak: 6 - Gizonak: 5 10.000€
Departamentuei aholkularitza ematea, Berdintasunerako II. Foru Planaren esparruan, politika batzuk genero ikuspegitik berrikusteko	Departamentu hauekin egin da lan gehien: - Gizarte Politika - Ogasuna eta Finantzak - Gazteria Zuzendaritza - Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza 6.000€
Departamentu guztiei aholkularitza ematea, 2013ko programazioko ekintza zehatzak abian jartzeko	Departamentu eta Zuzendaritza hauei eman zaie aholkularitza: - Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak - Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa - Kirol Zuzendaritza - Modernizazioko Zuzendaritza
Berdintasunerako foru politiken segimendua eta ebaluazioa	Berdintasunerako II. Foru Planaren tarteko kanpo ebaluazioa 22.800€



Azpiprograma honen xedea da berdintasunerako politikak sustatzea Aldundi mailan. Ildo horretan, barne lana bideratzeko laneko sistema bat artikulatu da, Berdintasunerako II. Foru Plana –berdintasunerako foru politikak planifikatzeko tresna nagusia– inplementatzeko.

Barne lana egiteko sistema horrek hainbat lan ildo ditu:

- Departamentu bakoitzeko lana sistematizatzea, programazio eta segimendurako tresna eta prozesu komunak oinarri hartuta.
- Departamentu arteko lan esparruak zehaztea politikariekin, teknikariekin, eta baita politikari eta teknikariekin batera ere, lehenetsunak eta estrategiak adosteko eta aurrerapenak, zalantzak zein oztopoak partekatu, elkarrekin hausnartu eta ikaskuntza kolektiboa sortzeko.
- Departamentu arteko lan espazioak, ad-hoc pentsatuak, ezartzea, emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Planaren esparruan, estrategikoagoak diren foru politikak, hots, politika ekonomiko eta fiskala eta gizarte politika, analizatzen laguntzeko.
- Gaikuntza prozesuak abian jartzea, berdintasunerako foru politikak garatzeko barne baldintzak hobetuko dituzten prestakuntza eta ekintzetan oinarrituta.
- Gai komunetan prestakuntza ematea, era horretan, teknikariek tresna zehatzak izan ditzaten foru politika ezberdinetan berdintasunaren aldeko jarduera zehatzak abian jarri eta horien segimendua egiteko.
- Aholkularitza mekanismoak eskaintzea, departamentu bakoitzak martxan jar ditzan *Berdintasunerako II. Foru Plana* inplementatzeko urteko programazioaren arabera dagozkion ekintza zehatzak.

Horrekin guztiarekin lan egitura konplexu baina koherentea sortu da, berdintasunerako politiken garapen egokirako funtsezko alderdietan eragina izateko: konpromisoan, koordinazioan, gaikuntzan, plangintzan eta segimenduan.

2016tik aurrera, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arau berriaren esparruan, araua sendotu eta finkatzeko lana egin beharko da, eta horretarako baliabide berriak jarri eta artikulatu beharko dira: baliabide ekonomikoak, pertsonalak, prestakuntzakoak eta antolakuntzakoak.

Berdintasunerako udal politikak sustatzea

Berdintasun Zuzendaritzak, udal mailan berdintasunerako politikak sustatzeko asmoz, jarduera hauek jarri ditu abian 2015ean zehar:

Berdintasunerako politiken esparru egonkor bat duten udalerrien proiektu estrategikoei laguntza ematea (*) (* Berariazko plangintza, langileak eta aurrekontua	Diru laguntzak emateko deialdia: 160.000€ Diruz lagundutakoak: 16 udal 1 mankomunitate (4 udalerrri) 26 proiektu
---	--



<p>Gipuzkoako udalerrri txikietan berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzeko aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua ematea ("Berdinbidean" programa)</p>	<p>Aholkularitza zerbitzua: 30.000€ Prestakuntza mintegiak: 11.000 €</p> <p>Aholkularitza eta dinamizazioa jasotzen ari diren udalerrien kopurua:</p> <ul style="list-style-type: none">- 10 udalerrri- 2 mankomunitate (7 udalerrri)- <i>Txikien taldea</i> (20 udalerrri) ^(*) <p>Lan ildoak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea- Emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak sustatzea- Udalerrietan indarkeria matxista sortzen den egoeretan aplikatu beharreko jardura protokoloak zehaztea <p><small>(*) 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak</small></p>
<p>"Berdinbidean" programaren baitan, berdintasuneko udal arduradunen artean hausnarketa, koordinazioa eta hartu-emanak egiteko esparruak sortzea, bai politikariek, bai teknikariek</p>	<p>Laneko bilerak: 20.000€ Egindako bilera eta topaketen kopurua:</p> <ul style="list-style-type: none">- kolektiboak: 9- udalerrri mailan: 50 <p>Lanerako gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Lan ildo bakoitzaren esparru teorikoa- Ildo bakoitzerako laneko plan zehatza- Testuinguru bakoitzera egokitutako jarduketaren diseinua
<p>Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea) ekimenarekin elkarlanean, Gipuzkoako Berdintasunerako Teknikarien Sarea martxan jarri eta dinamizatzea, Gipuzkoa mailan egiten den lana indartzeko.</p>	<p>Zerbitzu teknikoak: 20.000€ Prestakuntza eta ekintza programa: 18.000€ Egindako bilera eta topaketen kopurua: 16 Lanerako gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak sustatzea- Emakumeen aurkako indarkeria matxista- Genero mainstreaminga <p>Sarean parte hartzen duten teknikariak: 20</p>
<p>Udalei berdintasunerako teknikariak kontratatatzeko laguntza ematea</p>	<p>Hitzarmenak sinatzea 2014an berdintasunerako udal egiturak sortu edo indartu zituzten udalekin: 50.000€ Sinatutako hitzarmen kopurua: 5</p>

Azpiprograma honen helburua da udalerrietan berdintasunerako politikak sustatzea. Horregatik, tokiko administrazioan eragiten da zuzenean, udalak berak izanik herritarrentzako programa zehatzak abian jarri behar dituztenak.

Ildo horretan, gure ustez, udalerrien arteko lanerako sare bat finkatzen ari da, eta sare horrek:

- Arduradun politikoak eta teknikariak inplikatzeko
- Udalerrri handiekin eta txikiekin egiten du lan, berdintasunaren esparruan, orain arte, bereizita baitzeuden.
- Aldi berean, lurraldez gaindiko beste sare batzuekin ere koordinatzen da, lan komuna ere indartuz.
- Gipuzkoako aniztasuna kontuan izan nahi du, eta udal bakoitzari bere "ibilbidea" eskaini, bere egoeraren arabera.



Sare eta praktika feministak finkatzen laguntzea

Berdintasun Zuzendaritzak **Gipuzkoan sare eta praktika feministak finkatzeko helburuarekin** 2015ean zehar abian jarritako ekimenen artean, honako hauek dira aipagarriak:

Gipuzkoako elkarte feministek eta emakume taldeek berdintasunerako abian jarritako proiektuei laguntza ematea	Diru laguntzak emateko deialdia: 200.000€ Diruz lagundutakoak: 34 elkarte Proiektuak: 50
Gipuzkoako sare eta praktika feministei laguntza ematea	- Donostiako Emakumeen Etxearekiko hitzarmena: 39.320€ - Bidasoaldean Emakumeen Etxea sortzeko laguntza: 67.000€
GFAREN eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakume elkarten arteko elkarrizketa politikorako esparruak sortzea eta martxan jartzea	- GUNEA Berdintasuneko Foru Kontseilua sortzea eta martxan jartzea 60.000€ Ordezkatutako elkarteak: 35
Apoyo a la creación de un archivo sobre la historia del movimiento feminista en Gipuzkoa	- Gipuzkoako Mugimendu feministaren historiari buruzko artxiboa sortzeko laguntza ematea: 8.700€ - Koldo Mitxelena kulturunearekiko akordioa artxibo hori bertan gordetzeko

Azpiprograma honetako ekintzen helburua, zehazki emakumei zuzendua, emakume elkarten eta feministen praktikei laguntzea da, ikuspegi feminista eta ahalduntzaitatik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta emakume mugimenduen eta mugimendu feministen arteko topaketa eta elkarrizketa guneak sortzeko.

Alde horretatik, lan esparru honen funtsezko balioa izan da laneko eta trukerako esparruei buruzko azterketa, hausnarketa eta debate prozesuari ekitea, eta emakume elkarteekin eta mugimendu feministekin partaidetza prozesu bat abian jartzea, Gipuzkoako Berdintasunerako Foru Kontseilua sortzeko, mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarteekin elkarrizketa politikoa egiteko organoa izan dadin.

Indarkeria matxistaren aurkako borroka

Lan esparru honetan, bi helburu estrategiko nagusi proposatzen dira:

- Alde batetik, **emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru politika berdintasunerako politikarekin lotzea** Horrek esan nahi du, politika horiek guztiak berrikusi egin behar direla, zuzeneko indarkeriari aurre egiten dioten emakumei ahalduntzen laguntzeko.
- Bestetik, **indarkeriaren kontzeptua zabaltzea**, ohiko zuzeneko indarkeria ereduetatik haraindi. Ildo horretan, izaera kultural eta sinbolikoko zeharkako indarkeriari aurre egiteko jarduketak ere abian jarri nahi dira



2015ean zehar abian jarritako jarduera aipagarrienak honako hauek dira:

Zuzeneko indarkeriaren aurkako foru politikak berrikusi eta birdefinitzea	<ul style="list-style-type: none">- Indarkeriari ikuspegi ahalduntzailearekin aurre egiten dioten emakumeentzako baliabideak aztertu eta ebaluatzea, eta horiek hobetzeko proposamenak egitea- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeak artatzeko foru zerbitzuak birdiseinatzen laguntzea- Batzorde politiko eta tekniko bat sortzea emakumeen eta gizonen Berdintasunerako organoaren eta Gizarte Politikako departamentuaren artean, indarkeria matxistaren kontrako foru politika koordinatzeko- Gipuzkoako udalei aurkeztea indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeak artatzeko foru zerbitzu berriak eta arlo horretan adostutako laneko eredia
Aisialdiko eta jai eta ospakizunetako eredu inklusiboak sustatzen dituzten prozesuei laguntza ematea	<ul style="list-style-type: none">- Irungo alarde mistoarekiko hitzarmena: 30.000€- Irungo eta Hondarribiko gatazkak konpontzen laguntzeko erakunde arteko esparrua bultzatzea: 10.000€- Gastronomía elkarteetan zabaltze inklusiboa egiteko prozesuei laguntza ematea. Bi gida egin dira, antzeko prozesuak martxan jarri nahi dituzten Gipuzkoako beste herri batzuentzat lagungarri izango direlakoan: elkarte gastronomikoetako berdintasunari buruzko gida bat, eta jaietako eta aisiaguneetako berdintasunari buruzko beste bat.
Gazteekin indarkeria matxistari aurrea hartzeko lan egitea	<ul style="list-style-type: none">- "Beldur Barik" erakunde arteko programa: 21.500€- Bidasaldeko gazteekin egindako proiektua: 55.000€- "Berdinbidean Txikiak" programaren baitan indarkeria matxistari aurrea hartzeko gazte jendearekin lan egitea: 10.000€

Abian jarritako jarduerari esker, bi esparrutan aurrerapausoak ematen ari gara:

- Alde batetik, indarkeriaren aurkako borrokan, foru politikak antolatu ditugu, berdintasunerako politiken esparruan sustatzen diren proposamenen eta Gizarte Politikako Departamentuan egiten den lanaren arteko koordinazioa eta koherentzia sustatuz. Gainera, laneko esparru hau jasota geratu da *2/2015 Foru Arauan, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan*, Berdintasunerako Organoak arlo honetan dituen funtzioak zehaztean.
- Bestetik, emakumeen aurkako indarkeria matxista modu zabalagoan, ikuspegi globalago eta integratzaileagoaren arabera, ulertzeko sentsibilizazio sozialean aurrera egin dugu.

Sentsibilizazioa

Lan esparru honetan, ikuspegi feministan oinarrituta, bizitzaren iraunkortasunari lotutako **debate soziala** sustatzeko lehen pausoak egin dira.

Lan esparru zaila da, bizitzaren iraunkortasuna Berdintasunerako II. Foru Planeko estrategia ildo ezberdinei baitago lotuta:

- Ongi bizitzeko ekonomiari
- Zaintza duin eta unibertsalak
- Ongi bizitzeko inguruneari
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzari



2015. urtean zehar garatutako jarduera nagusiak hauek dira:

Sentsibilizazio kanpainak	“Egin dugu” kanpaina - Zaintza duin eta unibertsalak - Bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia - Indarkeria matxistarik gabeko bizitza - Partaidetza soziopolitikoak 30.000€
Online komunikazioa	- “Berdintasuna” webgunea garatu eta mantentzea - Sare sozialak kudeatzea 10.000€
Argitalpenak	Debate feministarako hiru koaderno maketatu, diseinatu eta argitaratzea - Bizitzaren iraunkortasuna - Politika ekonomikoak eta enplegu politikak - Zaintza lanak Udalerrietan prozesuak garatzeko orientazioak emateko bi gida maketatu, diseinatu eta argitaratzea: - gastronomia elkarreetan zabaltze inklusiboa egitea - berdintasunezko jaiak 15:000€

Egindako ekintzen bidez, gaiari buruz hausnartzeko eta debatitzeko mezuak zabaldu dira, berdintasunerako politiken azken xedea, izan ere, zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean kokatzea delako.

Alde horretatik, nahitaezkoa da gizartea sentsibilizatzea, Aldundiaren jarduketa batzuk ulertu eta sostengatu ahal izan ditzan. Bizitzaren iraunkortasunaren alde lan egitea oso konplexua da eta, gainera, zailtasun ugari daude, GFAk eskumenaren aldetik dituen mugak kontuan izanda, bide horretatik aurrera egin ahal izateko funtsezkoak diren hainbat sektoretan ezin baitu jardun: hezkuntzan, enpleguan, lan ikuskeran, osasunean, gizarte segurantzian, hiri plangintzan, etab.

Horregatik, Aldundiaren jarduketa esparrua mugatu behar da, hori oinarritzat hartuta, politika publikoen erdigunean zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna ezartzeko jarduerak diseinatu ahal izateko.

5. GAITASUNEN INGURUKO HAUSNARKETA

6. EGIN AL DA ANALISI EDO IKERKETA BEREZIRIK? EGIN BADA AZALDU



7. AURREIKUSTEN DIRA ALDAKETAK HOBEKUNTZAK SARTZEKO GENERO IKUSPUNTUTIK?

Bai:
Azaldu:

Ez: